TOMBOLA

HIKA TEATROA

2020

TONBOLA

HIKA ETA KALEA

HIKA kaleko antzerkiarekin jaio zen, han egin zituen bere lehen urratsak: Eta ohea egin gabe eta Charlotadak dira, besteak beste, garai hartako adibidetako batzuk. Gero, eta urte askotan, helduei edota familia osoari zuzendutako aretoko ikuskizunak biziarazi ditu.

2017an, ordea, HIKA, hastapen haiek gogoratuz, kalera itzuliko da kaleko antzerki-dantza ikuskizun batekin: Sagartu. Oinkari Dantza Taldea eta HIKA Teatroaren arteko ekoizpen hau duela hiru urte estreinatu zen Zarautzko Kale Jaialdian eta, harrez geroztik, sagarraren biribiltasunaren aitzakian, ikuskizunak dantzan jarri ditu Euskal Herri osoko plaza eta bazterrak.

Sagarturekin kalean berrirekitako bideak jarraibidea izate aldera, HIKA kaleko lan berri bat aurkeztera dator: TONBOLA, jai giroko Kabaret partehartzailea. Aldi berean, ikuskizun honek kritika zorrotza egin nahi dio gizakiaren diru eta botere goseari, irabazleen aldean egoteko dugun grinari, eta galtzaileengandik gure territorioak babesteko dugun beharrari, muga eta heziekin.



Sagartu KALEAn, 2018ko Uztaila

ABIAPUNTUA

-Ez du axola nor zaren, zer zaren, ezta sikiera zer izan nahi duzun. TONBOLA honek zuregatik erabakitzen du!-
Europak ez bezala, mugaz ulertzen ez duen KABARET POETIKOA.
“Bizitza tonbola bat da” ideia abiapuntu hartuta, ikuskizun honek tonbolero familia batek eta haren ahuntzak EUROPAn bizirauteko egin beharrekoak kontatzen ditu. Denetarik zozketatzen dute: oliba bilketarako lan-kontratuak, Danimarkarako familiak, ogi txigorgailua, “Made in Libia” markako paterak eta, horrez gain, EUROVISONen parte hartzeko bi gonbidapenen balio duen urrezko txartel bat.

GAIAK

IKUSKIZUN honen bitartez “BIZITZA TONBOLA BAT DA” kontzeptuaren inguruan lan egin nahi dugu. Gure abiapuntua hauxe izango da:

“Zure bizitza desastre hutsa bada ere, zaude lasai, gainontzekoena hutsaren hurrengoa baita. Tonbola honek onerako edo txarrerako, zaren hori ez, beste norbait izateko aukera emango dizu. Zorteak erabakiko du zuregatik.
TONBOLA-k, txikitzen ari garen munduaz satira garratza izan nahi du.
“Nork ez du europarra izan nahi Eurovisionen parte hartzeko? “
Generoa, arraza, adina, maila soziala, iparra ala hegoa… zentzugabekeria itzela da den dena klasifikatzeko dugun joera. Geure etorkizuna baldintzatzen ari gara etengabe, eta nahikoa da sistemaren aurka ahalegin txikiena egitea, gure inguruan territorioa markatuko diguten heziak eta mugak nonahi sortzen hasteko.

EGILEAK

Sormen lana aktoreen inprobisazioetatik sortu eta Agurtzane Intxaurraga arduratuko den arren, azken testua ontzen eta harilkatzen, HIKAk Benjamin Jimenez idazlearen SUEÑAN LOS PECES CON HUELGAS GENERALES testua ere izango du bidelagun sormenean. Gure ingurumariko munduaren ikuspuntu anitza duen testua da, hipokresia eta zentzugabekeriaz hitz egiten duena zuzen eta argi. Inork ezingo luke halako testu bat entzun gabe geratu.

Benjamin Jimenezen testuaren laginak:

“Zoriontsua ez bazara, errua zeurea da. Lanik ez badaukazu, alferraren seinale. Dirurik ez baduzu, arriskatu ez duzulako. Gaixotzen bazara, zaintzen ez zarelako”

(…)

“Norbait hiltzea norbere seme-alabei egunero jaten ematea baino errazagoa da, norbere seme alabentzat jana topatzea baino. Erditzea baino askoz errazagoa da, inork ez du kontrakziorik sentitzen orduak joan orduak etorri pistola baten burutik bala bat atera aurretik eta, batez ere, askoz azkarragoa de bonbardaketa estrategiko baten agindua ematea, paritorio baten erditzea baino.
Pentsatuz gero, horren erraza izanda eta horren erraz jarri arren, oso gutxi hiltzen da”.

“Kaka den lana, gizakopatak agintean, ataskoak, garraio publikoak gainezka, musika ozenegi duten zentro komertzialak, lepo dauden espaloietako obrak”.

(…)

“Zibilizazioa. Animaliengandik aldentzen diguna. Zibilizazioa modu ordenatu baten hondamendirantz joatea da, baina, beti ere, onurak jasoz”.

(…)

“Identitatea, Identitatea, Identitatea.
Badira 50 urte zuen aiton-amonak etorri zirena.
Zuen aiton-amonek gogor lan egin zuten.
Benetan ere, kaskagogorrak zarere.
Jaramonik ez duzue egiten
Eta beltzak, arabiarrak, antillanoak, karibetarrak, sudakak edo pakistandarrak izaten jarraitzen duzue.
Ez duzue ezer ikasi”.

Bestalde, Onintza Enbeita bertsolariak idatziko ditu kantuen letrak. Txarriboda ikuskizunaren ondoren, bigarren aldiz egingo du lan HIKArekin eta oraingoan ere kantu askori jarriko dio berein-berein letra. Erritmo askotako eta estilo ezberdinetako kantuak, dudarik gabe ikuslea dantzan eta kantuan jartzeko modukoak



LAN TALDEA

Bata dantzatik, bestea musikatik, interpretaziotik edota lan fisikotik datozen artistak bilduko ditu ikuskizunak. Dudarik gabe, lan talde aparta eta guztiontzat erakargarria.

Tonbolako gizona (Iñigo Aranburu). Gizon hiztuna. Ez daki mingaina zuloan gordetzen. Trufaz eta murrikaz zuzentzen zaio jendetzari, noranahi bultzatuz. Bere birtuterik handiena, errealitatea manipulatzeko daukan gaitasuna. Bere lagunik onena, musika.

Tonbolako emakumea (Sandra Fdez. Agirre / Maryse Urruty). Energia eta bizitasun handiko emakumea. Nahi duenean gizona ere txintxo jartzen du. Eta harek ez bezala, ederki daki premiarik gorrienari ere bere alde ona ikusten.

Atzerritar ahuntza (Eneko Gil). Ahuntz gizatiarra eta dantzaria. Eskaileran igota ikuskizunak egiteaz gain, tonbolero bikoteari ikusleekin laguntzen die. Ez du hitz egiten, bekerekeka aritzen da. Hormak begiz jota ditu, eta guztiak igotzen saiatzen da.

Emakume nagusia (Miren Gojenola). Manuelak bere errealitatea bizi duen arren, errealitateari itsatsita dagoen pertsonaiarik gizatiarrena da, ikusleak berehala bereganatzeko modukoa. Nazionalitate eta jatorri ezberdinetako jendearekin egon, haiek entzun, eta haiekin mintzatzeko sasoi handia dauka. Gaur egungo Charlota da.

Lau pertsonaia hauetaz aparte, ikuskizunean beste hainbat pertsonaia biziko ditugu: umea, emakume islamiarra, kale txakurra, txakur txikia, amerikar turista, eta abar luzea.

MIREN GOJENOLA. HIKAko sortzailetakoa. Egun, harreman estua jarraitzen du izaten taldearekin. Zehatz esanda, duela lau urtetik hona HIKAren ikuskizun guztietan egon da, aktore edota zuzendari laguntzaile. Eszenaren jabe da, umorea eta antzezten dituen pertsonaien freskotasuna eta eszenaren poetikaren arteko oreka eskainiz.

IÑIGO ARAMBURU. Iñigok pelikula eta telesail ugarietan egin du lan. Handia, Diecisiete, Ventajas de viajar en tren, Morir, Cuéntame cómo pasó, Goenkale edo El Cor de la Ciutat, barne. Halaber, LA GUAPA Teatre konpainiako kide sortzailea da eta, besteak beste, Opció B, Call Center edo El Biograf muntaietan parte hartu du. Agurtzanek eta Iñigok Euskal Aktoreen Batasunak bultzatutako Sormenaren parte izan ekimenean izan zuten elkarrekin estreinakoz lan egiteko aukera. Harrez geroztik, proiektu ezberdinetan elkarrekin aritu dira. Orain TONBOLA iritsi da eta, berarekin, tonbolero ezin hobea.

ENEKO GIL. Dantzari honek eta Agurtzane Intxaurragak lan harreman estua landu dute azken urteotan (adib: Sagartu). Ziurrenik, Eneko Gil Euskal Herriak eman duen dantzaririk sendoenetakoa da, eta baita ezagunenetakoa ere. Dantza tradizionaletik garaikidera dagoen bidean maisua da, eta bere partaidetza, ikuskizunak gorputz mugimenduari emango dion garrantziaren bermea izango da.

SANDRA FDEZ. AGIRRE: Aktorea, titiritera, abeslaria, biolontxelo jotzailea. Zinez emakume sendoa, gaitasun eszeniko oso osokoa. Eskarmentu handia dauka kale antzerkian, eskarmentu handia dauka gorputz espresioan eta zer esanik ez txotxongiloen erabileran. Taldea ezagutzen du eta Hikarekin lan egiteko aukera berri honekin ilusionatuta dagoela aitortu digu. Ama izan da eta orain eszenari ikuspuntu berri batetik so egiten omen dio.

MARYSE URRUTY, Maryse Antton Lukurekin hasi zen antzerkian. 2015an, 13R3P konpainia sortu zuen, aktore, idazle eta zuzendari lanak garatuz. Besteak beste, Il était une fois l'Internet / Behin Bazen Internet eta Bureau des Exils ikusgarriak atera zituen. 2017an, lehen aldiz lan egingo du euskaraz, Itzuli, bere konpainia berriarekin. Egun, Baionan bizi da eta Entre les Gouttes, Hecho en Casa, Jour de Fête eta Atx Teatroa konpainiekin lan egiten du. Hilabete batzuk, Agurtzanek Baionan ikusi zuen estreinakoz lanean, Cyrano ikuskizunean, eta gorputz osotik komunikatzen duela iruditu zitzaion.

ONINTZA ENBEITA. Bertsolaria (2018an Bizkaiko txapela jantzi zuen), aurkezlea. Emakume handia hitzekin jolasten eta jokatzen. Badaki zer eta nola esan, zuzen eta argi, baina umorerik galdu gabe. Horrexegatik jo dugu berriro berarengana, plazandrea delako eta jendeari nahi duena baino behar duena ematen asmatzen duelako.

AGURTZANE INTXAURRAGA. Zuzendaria, antzerkigilea. Bere burua teatreratzat jotzen du. Kalean gustura sentitzen dela dio. Jendearekin zuzeneko harreman horrek piztu egiten omen du, eta egiten duenaz kontzientzia gehiago izateko aukera ematen omen dio kaleak. Antzerkiak entretenitzeko baino zerbait gehiagorako izan behar duela sinetsita dago: zirikatzeko, erantzuteko, galdetzeko, eraldatzeko, aurka egiteko, mundua beste begi batzuetatik ikusteko. Bereak emakume baten begiak dira.

PARTAIDETZA

Azken lau urteotan HIKAk apustu egin du ikuskizun bakoitzaren sormen bidean, mediazioa eta sentsibilizazioaren alde. Herritarrekin partekatu ditu sormenaren hainbat une jasotako iritziak eta iradokizunak bere eginez.

TXARRIBODA ikusgarrian adibidez, emanaldiz emanaldi tokian tokiko eragileen partaidetza izan dugu. Guztira 500 herritarretik gora aritu dira dantzan, kantuan edota bertsotan, egundoko festa antolatuz eta emanaldi bakoitza bakarra eginez.

Oraingoan urrats bat aurrera egin nahi dugu eta herritarren ahotsa sormenaren parte izatea nahi dugu.

TONBOLAk Europan dauden mugaz eta hesiez hitz egiten du. Mugaren alde batean eta bestean dauden pertsonen arteko harremanez, desioez, beldur eta minez. Mugak gainditzeko bidean, ikuskizunak disziplina anitzeko artistak lanean jartzeaz gain, Europako giza aniztasuna ere jarriko du mugan. Aniztasun horren ahots, ikuskizunean ETORKIN baten kolaborazioa izango dugu. Bide horretan, etorkinekin lanean eta harremanetan dauden hainbat herri elkarterekin lan egingo dugu helburu zehatz batekin: euren errealitatea zuzenean ezagutu eta nortzuk diren jakin ostean, ikuskizunaren zuzeneko ahots izateko (Hernaniko AMHER, adibide).





estruktura mugikorraren zirriborroa

FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea. Aktoreen inprobisazioetatik abiatuz, Agurtzane Intxaurragaren dramaturgia.
Testuak. Agurtzane Intxaurraga, Benjamín Jiménez.
Aktore taldea. Eneko Gil, Miren Gojenola, Iñigo Aranburu, Sandra Fdez. Agirre, Maryse Urruty
Kolaborazio berezia. Etorkina.
Zuzendaritza. Agurtzane Intxaurraga.
Musika baseak. Iñaki Diéguez.
Koreografia. Eneko Gil.
Jantzien diseinu eta egitea. Oihana Legorburu.
Panpinak. Urko Redondo Pescador.
Eszenografiaren diseinua eta eraikuntza. Oscar de la Paz.
Grafikaren diseinua. Santos Bregaña.
Argazkiak. HIKA Teatroa.
Promozio bideoak. Acrónica Producciones eta Pausa Digital.
Talde teknikoa. Eraginstac.
Administrazioa. Asun Etxeberria.
Komunikazioa. Teresa Sala.
Banaketa. HIKA Teatroa (Agurtzane Intxaurraga & Teresa Sala).



HIKA Teatroa
Aldapa kalea 14. Donostia. Gipuzkoa
T 633 252 200 - 656 792 501
hika@hikateatroa.eus
www.hikateatroa.eus